



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2009-05-10

VIIURTEA 1.698.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



David de Jorge sukaldariak janari mexikarra eta babarrunak eta gazta ogiarekin prestatu zituen, Zerkausian. E. EZEIZA

AZOKAKO PRODUKTUEN ABERASTASUNAZ OHARTZEKO EKIMENA

TOLOSA Slow Food mugimenduko kide den David de Jorge sukaldariak Tolosako azokako produktuekin tortilla mexikarra prestatu zuen atzo 6



Tolosar batzuk ere hartu zuten parte estadioko paretak margotzen. N.URBIZU

Herriko paretak kaleko artearen erakusleiho

TOLOSA Artista txiletarrek Berazubiko paretak margotu zituzten GKO galeriakoen ekimenez 7

Jon Aizpuruak irabazi du IX. HITZA Argazki Lehiaketa

TOLOSALDEA-LEITZALDEA Asteburu bateko egonaldia irabazi du Aldori landetxean 5

Jon Mujikak irabazi du Javier Urkolaren omenezko duatloia

TOLOSA Tolosarrak 34 minutu behar izan zituen ibilbidea amaitzeko 4



TOLOSALDEA GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA



“ATE IREKIEN EGUNA”

MAIATZAK 12, ASTEARTEA

17:00etatik 20:00etara

Ikasle, guraso, langile, enpresa eta interesatu guztiei zuzendua.

Ikastetxeko instalazioak eta eskaintza ezagutzeko bisita gidatua.

943 65 11 47 • www.tolosaldea.com

Mugikorrean informazio gehiago
Mezu bat bidali: **TOLOSALDEA** idatziz 5533ra

Galera



» Uzturretik

Iratxe Etxebeste

Zenbat aldiz esan ote didazu: gelditu denbora! Eta, nik, gehienetan, barre. Entzutea gustatzen zitzaidan-eta. Eta entzutea gustatzen zait oraindik, nahiz eta zuk jada ez didazun horren sarri esaten momentu jakin bat, leku konkretu bat gustura izoztuko zenukeela, betiko argazki bihurtu.

Arrazoi duzu, laztana: gauzak aldatu egin dira. Eta, orain, ez da-

kit betiko argazkien albuma osatzeko modurik izango dugun inoiz, edo horrela geratuko den, inkompleto, eta, aldi berean, konpleto.

Zail da jakiten.

Afrikartzearena bezala. Hemengora ohitu edo batek daki nora alde egin. Ametsetan aritzen ginen, gogoan duzu?

Bada ametsak ere agortu zaizkit. Negu hau bezain amaigabea den nahigabe honek ilundu dizkit denak, maitea, desagertzeraino.

Eta, bitartean, argazki bat, beste bat etabeste bat... Mila argazki edo gehiago bata bestearen jarraian.

Zureak. Nireak. Gureak, argazkiak. Azarotik iltzatuta daude buruan, eta aurrerantzean ere gorde-gordeak eduki nahi dituz; ez dauzkat saltzeko, ez.

Ez zauzkat saltzeko.

Eta orain zure hitzak oroitzen

ditut noiznahi. Ekaitzaren ostean barealdia etorriko zelanola esaten zenidan, adibidez. Edo lasai egoteko, zoriontsuak izango ginela berriro. Denbora kontua, besterik ez zela.

Egia da. Gaitzaren, tristoraren, nekearen ostean etorri da barealdia. Baina itsaso zakarrekutzitako arrastoek hondartza epeletan jarraitzen dute, eta, itxura guztien arabera, ez dira berehalakoan joango.

Bakeak ez dit atsedunik ematen. Geroak ez dit bakerik ematen.

Gezurra ematen du, baina iragana da, uneotan, sosega nazaketen bakarra. Iragana, bai, honezkerro existitu ere egiten ez den denbora eterno hori.

Gauzak aldatu egin dira, laztana, badakit. Baina zure galerak min ematen du oraindik. Erdi zabalik erdi itxita dauden zauriek

min ematen dute. Min, bihotzean min, zer etorriko den pentsatzeko hutsak bezala.

Denbora geratzeko, zenbatetan eskatu ote didazu! Eta, nik, gehienetan, barre —badakizu, beti izan duzu niri irribarra eragiteko abi- lezia—.

Ez dago nire esku, erantzuten nizun, denboraren kontu horretan inolako ardurarik ez neukala erabat sinetsita.

Orain ulertzen dut. Ez zen zehazki momentu bat izoztu nahi zenuena. Ez zen leku zehatz bat.

Osatu gabe geratu den albuma laztantzen zenuen behin eta berriro, noizbait desagertuko zeneroan. Eta, ni, bitartean, lo. Denbora betirako geratu izan balitz bezala. Denbora betirako izoztu balitz bezala.

Dolua, hala deitzen diote.

L Laburrak

Bihar, elkarretaratzea Irungo erailketa salatzeko

TOLOSA • Irunen atzo erail zuten emakumearen heriotza salatzeko elkarretaratzera deitu du Tolosaldeko Bilgune Feministak bihar, astelehena, 19:30ean San Frantzisko pasealekuan. Ustez bere bikote ohiak hil zuten labankada batez emakumea. Aurten Euskal Herriari hil duten hirugarren emakumezkoa da.

Aizkardikoan irteera Lokiz eta Montejuerrara

VILLABONA • Hilaren 16 eta 17rako Lokiz mendilerroa eta Montejuerrara irteera antolatu du Aizkardi mendi elkarrean Ollogoieneko eginez (iganderako bakarrik ere joan daiteke autoz). Izena elkartearen bertan (ostegunean) 21:00etatik 22:00etara edo 649 717182 telefonoan eman daiteke.

A Asteko irudiak



Kultura eskualdeko txoko askotan

TOLOSALDEA-LEITZALDEA • Jakina da eskualdean mugimendu kultural handia dagoela. Horren adibide astero-astero gurean dagoen eskaintza kultural zabala da. Aste honetako agendari erreparatuz gero, esaterako, Alkizan eta Iruran Kultur Astea ospatzen ari dira, ekitaldi ugariekin. Halaber, Anoetako Gaztetxean urteurrenaren harira kultur ekitaldi ugari antolatu di-

tuzte. Zuzurkilen ere Oteizari buruzko erakusketa zabalik dute Atxulondoko kultur etxean (irudian, inaugurazioaren une bat, pasa den ostegunean). Tolosak ere kultura kalera atera du aste honetan, Txileko artista batzuen eskutik (Irudian, Plaza Zaharrean ostegunean eginko lanak). Leitzan ere hilaren 18an emango diote hasiera Kultur Asteari. I.GARCIA/N.L.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

KONDEKO ALDAPA, 5 - 20400 TOLOSA
TELEFONO: 943 67 00 40 FAXI: 943 670719
WWW.FUNERARIASVASCONGADA.COM

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Gure gizartean ekitate gabezia dago

» Iritzia

Tolosako Ingurumen Zentroa

Ondorio nagusi honetara iritsi dira Eskolako Agenda 21 proiektuan lanean jardun diren Tolosaldeko 5.000 baino gehiago haur eta gazteak. Bigarren ikasturtea da Tolosaldeko herri gehienek programa parte hartzaile honetan lanean ari direla, eta bosgarrena Tolosako ikastetxeen kasuan. Aurtengo gaiak *Ekitate gabezia* izan du izenburu nagusi eta programa honek eskola-komunitateak herriko ekitatza parte-hartzaileetan murgiltzea du helburu nagusienetako bat, tokiko Agenda 21ean parte hartuz.

Bost urte daramatzagu gaia jorratzen eta, Tolosako Ingurumen Zentroa-ri (TIZ) programaren sustatzaile eta dinamizatzaile funtzioak dagozkienez, hausnarketa egiteko tartea hartu nahi dugu. Badago, alde batetik, eskola-komunitateak egiten duen lan isila eta garrantzitsua, hedabideetan azaltzen ez dena eta azpimarratzea merezi duena. Programak dituen hiru ardatzetatik bi kokatzen dira aipatutako isilpeko gunean, hots: aukeratutako ingurumen aldagaia ikastetxeko curriculum-ean txertatze lanarena (hau da, maila bakoitzean aztertu nola tratatzen den eta zein helburu lortu nahi diren) eta ikastetxearen diagnostia egitearena (gero ekitatza plana es-



Tolosako sei ikastetxetako ikasleek Eskolako Agenda 21ean landutako aurkeztu zioten Udalari pasa den asteazkenean. E. EZIZA

kolan ere ezartzeko). Bai batak eta besteak ikastetxeko irakasleriaren inplikazio maila altua eskatzen dute, bereziki, proiektuaren ordezkari funtzioa hartzen duten irakasleena. Bost urteotan jorratutakoari kasu eginda lana bikaina egin dutela uste dugu eta, ikastetxeen inplikazio maila proiektuarekiko sendotu egin delakoan gau-

Bost urte hauetan ikastetxeen inplikazio maila proiektuarekiko sendotu egin da

de, are gehiago, herriko zein eskualdeko ikastetxeen arteko harremanak sustatu egin direla ere esan daiteke.

Orain arte aukeratutako inguru-

men aldagaia oso desberdinak izan dira: mugikortasuna, aisiarako aukeren eta guneen azterketa, kontsumoa eta hondakinak... eta ikasturte honetan (08/09) ekitate gabezia berriro ere kontsumoari lotuta. Hauen inguruan, herri mailan egindako azterketari esker, udaltxeetara ateratako ondorioak, egoera hobetzeko proposamenak eta ikasleek hartzen dituzten konpromisoak helarazi dituzte proiektuak duen hirugarren ardatza garatuz: herriko diagnostia landuz udalak sustatutako herritarrek parte hartzeko foro edo batzarretan eskola-komunitatea murgiltzea. Neska-mutilak egindako lanari udal prozesu parte-hartzaileetan tartea emateak berebiziko garrantzia du herri askotan, gaztetxoek beharrak eta iritziak

jasotzeko aukera bakarra baita. Heldu askok programaren berri izaten dutenean jarrera sinesgogorra azaltzen dute beraien uestez, haurrek ezer gutxi esan dezaketelako aipatutako gaien inguruan. Ahaztu egiten dugu haurrak herritarrak direla eta hiriko zerbitzuen, azpiegituren, eta kaleen erabilizailerak direla. Beraien egunerokotasunean arazo eta oztopo asko jasaten dituzte eta Eskolako Agenda 21 proiektuari esker udal ordezkariak hauei buruzko berri ematen diete. Gainera, Francesco Tonucci-k zioen bezala, herri bat umeentzako egokia denean, beraiei moldatuz eraikitzen denean, beste herritar guzientzako askoz ere erosoago izango da.

Orain, herri gehienetan foroak ospatzen ari dira eta Udal bakoitzaren ardura da jasotako ekarpenak, jazozen eta sortzen dugun ekitate gabezi hori ekiditeko ikasleek egiten dituzten proposamenak nagusiki, erantzuna ematea. Eskualdeko hainbat herrietako erantzun idatzia irakurriko dira

Oso garrantzitsua da udal prozesu parte-hartzaileetan gazteek egin duten lanari tartea ematea

laster eskoletan, gelaz gela. Hasita gaude txikietatik partaidetza lantzen, eta espero dugu herritar kritiko eta arduratsu asko izatea gure etorkizuneko gizartean.

E Esanak



«Datorren aste erdialderako, hilaren 14an edo, saiatuko gara Kangchenjunga gailurrera iristea»

«Mendi hau ikaragarria da, erraldoia baina oso polita, inurri bat ematen duzu bere ondoan»

«Sokak eusten duten ainguraketak beroarekin askatu egiten dira, arazo ugari sortu dizkigu»

«Espero dugu dana ondo joatea, oso mendi gogorra da»

EDURNE PASABAN
Mendizalea (*Diario Vasco*, 09/05/06)

B Blogteka

El Euskaltegi

Aste honetan interneteko helbide interesgarri baten berri eman nahi dizuegu. Elena izeneko gazte gazteitar batek sortu du bloga eta izenburua irakurri besterik ez dago bloghorrek zein gai jorratzen duen jakiteko.

Txoko honetan, Elenak, euskaltegian egunero gertatzen zaizkion kontakizunak dizkigu, oso era atseginean.

Horretaz gain, eskuinaldeko zu-

tabean, guretzat interesgarriak izan daitezkeen hainbat lotura gomendatzen ditu:

- Hainbat erakunde antolatzen dituzten azterketa deialdiak.
- Euskara ikasteko ariketak.
- Euskara ikasteko jokoa.
- Euskara praktikan jartzeko lotura interesgarriak.
- ...

Euskara ikasteko eremuan E-gela topatuko duzu, AEKren gela birtuala. Bertan topatuko di-

tuzu, besteak beste, Euskaltzaindiaren arauak, ariketak, EGA azterketa prestatzeko gunea, etabar. Bisitari edo erabilizailerak gisa sarzitezke eremu horretan.

Orrialde hau zure intereskoa izango delakoan, bertan sartu eta ezagutzera animatzen zaituztegu:

<http://eleuskaltegi.wordpress.com/>.

Hirukide ikastetxea
<http://www.tolosaldekohitza.info/blog/hirukide>

Z Zurea da Hitza

Belateko aparkalekua garestia iruditzen zait

Aste honetan Belateko aparkalekuan utzi nuen kotxea. Enkargu batzuk egin behar nituen eta pare bat orduz hor utzi nuen. Buelatatu nintzenezan 2,65 euro ordaindu behar izan nituen kotxea hortik ateratzeagatik.

Ez al da oso tarifa altua? Donostian baino gehiago ez ote da? Eta, kontxo, Donostia hiriburua da, baina Tolosa, ez. Harritu egin nin-

tzan aparkalekua ia hutsik ikusi nuenean baina orain ulertzen dut. Behin sartzen duenak ez du berriro egingo, prezioa ikusita. Aparkalekuekin dagoen arazoa ikusita hainbeste benefizio ateratzeko gogo hori albo batera utzi eta tarifak pixkat merketu beharko zituztela iruditzen zait.

Bestalde, noiz txukundu behar dute behingoz kanpoalde hori? Plaza ez al zuten pasa den urteko udan amaitu behar?

Myriam.

U Urteurrena

I. urteurrena AMETS AIZPURUA AGIRRETXE

Gaur urtebete maiatz berdean zure gogoa, bizkortasuna eguna esnatu zen beltz, dira gure gauro amets garai goxoa behar zuena orain eguna sortzen denean bihurtu zen horren traket esaten diguzu baietz nahiz ta askotan dena iruditu dagikulako gurekin, gugan amildegi ondoko ertz jarraitzen duzula AMETS



Etxekoak

ZUMAIA
2009ko maiatzaren 10

U Urteurrena

I. urteurrena AMETS AIZPURUA AGIRRETXE

Mendia zenuen maite itsasoa bezainbeste memento ederrak eman dizkiguzu tristorak barne hemendik joan zara baina gure bihotzetan zaude ondo billi hurrena ikusi arte



Saioa, Lierni, Munia, Enki, Izaskun, Edurne, Eneritz eta Joseba, Itziar, Aitzol, Arlette, Jon, Iñaki, Olatz eta Haizea.
IBARRALDEKO HIRE LAGUNAK!

ZUMAIA
2009ko maiatzaren 10

U Urteurrena

I. urteurrena AMETS AIZPURUA AGIRRETXE

Amets, urtebete pasa arren ustekabean joan zinela, ametsetan jarraitu nahi dugu hemen bazina bezala



Etxepekoak

ZUMAIA
2009ko maiatzaren 10

Kirola » Atzo arratsaldean jokatu zen zortzigarren aldiz proba hau; nesken eta gaztetxoaren parte-hartzea nabarmentzekoa izan zen.

ERREDAKZIOA

Atzo jokatu zen Javier Urkolaren omenezko VIII. Duatloia. Banaka, binaka eta taldeka lehiatu ziren 100 parte-hartzailetik gora. Proba herrikoa da hau, eta kirol zaletasuna eta umorea tartekatze bide ere izan zen. Gainera, eguraldiak lagundu zuen proba jokatzeko bitartean, eta ikusleek lasai animatu ahal izan zituzten lasterkariak.

Banakakoetan Jon Mujika izan zen garaile. Honek 34 minutu eta 56 segundo behar izan zituen bikilometro korrika, 15 bizikletan, eta berrero, beste bi, korrika egiteko. Hamabost segundo beranduago iritsi zen Plaza Zaharreko helmugara, Kepa Gamuza. Nesketan berriz, Leire Lizarralde izan zen irabazlea.

Aurten zenbait aldaketa egon dira lasterketan, eta horietako bat da, binaka eta taldeka ere lehiatu zitezkeela. Honekin, jende gehiagok parte hartzea bultzatu nahi

Jon Mujika izan da Javier Urkola Duatloi Herrikoiairen irabazlea

zuten antolatzaileek, hau da, Tolosaldeko Triatloi Taldekoek. Honenbestez, bikotekakoan, Jone Gibelalde eta Manex Kortajarena izan ziren garaileak. Taldekakoan berriz, Andoni Urteaga, Josu Mondragon eta Mikel Agirrek osatutako hirukoa izan zen helmugara iristen lehena.

Zenbait bitxikerietarako tartea ere izan zen atzoko lasterketan. Izan ere, Batman eta Robin komikietako supereroiak ere lasterka aritu baitziren.

Aurtengoan, nesken eta gaztetxoaren parte-hartzea azpimarratu zuten antolatzaileek. Iaztik hona kopurua handitu egin baita. Dena den, aurrera begira ere, neska nahiz gaztetxo gehiago animatzea nahi dute.

Proba amaitu ostean, txokolate beroa eta pastak izan zituzten sari parte-hartzaileek. Baita kirola egiteko materiala ere. Honetaz gain, zenbait opari ere zozketatu zituzten.



Javier Urkola Duatloi Herrikoiairen irabazleak sari banaketan: banakakoak, bikotekakoak eta taldekakoak. E. EZEIZA



Jon Mujika tolosarra izan zen garaile atzoko lasterketan; 34 minutu eta 56 segundo behar izan zituen. E. EZEIZA

%-30
skunkfunk
TOTAL LOOK SKUNKFUNK
SKUNKFUNK Tolosa: Kale Nagusia 21-23, 20400 Tolosa

libre!

munduan libre bizi ahal izateko **Egunkaria** libre munduan bizi ahal izateko

Joan Mari Torrealdei, Txema Auzmendi eta Iñaki Uria
Espainiako Auzitegi Nazionalera deitu dituzte deklaratzera

Sei urte
Egunkaria
gabe

2009 MAIATZAK 12

ELKARRETARATZEA
11:30ean Martin Ugalde Kultur Parkean

Egunkaria
libre!

www.egunkaria.info

Tolosaldea-Leitzaldea »

Aldori landetxean asteburu bateko egonaldia irabazi du; 2. eta 3. Ibon Azpilikueta eta Fernando Rojo izan dira.

Jon Aizpurua alegiarrak irabazi du IX. HITZA Argazki Lehiaketa

ERREDAKZIOA

Harpidedunek Jon Aizpurua Kantabrian ateratako argazkia hautatu dute IX. Hitza Argazki Lehiaketako irabazle bezala. Bozkaren gehiengoarekin, alegiarrak asteburu bateko egonaldia irabazi du Muxikako Aldori landetxe berezi eta dotorean.

Bigarren saria, berriz, Ibon Azpilikueta rentzat izan da. Alegiarrak badaki zer den argazki lehiaketa irabaztea. Berarentzat Tolosako Larrea jatetxean bi lagunentzat otordua izango da. Fernando Rojok Palestinan atera zuen argazkiari esker hirugarren postua lortu du. Berak Tolosako Gorrotxategi gozodendako saskia irabazi du.

Parte-hartze altua

Jende askok hartu du parte lehiaketan. Gehienak Euskal Herrian bertan ateratako argazkiekin saiatu dira saria lortzen; maila ere altua izan da, irudi ederrak bildu baititugu. Baina ez gorde kamera... udan izango duzue aukera berri bat.

» IRABAZLEAK

Lehen saria. Jon Aizpurua (Alegia). Muxikako Aldori landetxean egonaldia irabazi du.

Bigarren saria. Ibon Azpilikueta (Alegia). Tolosako Larrea jatetxean bi lagunentzat otordua.

Hirugarren saria. Fernando Rojo (Tolosa). Gorrotxategi gozotegiaren eskutik saski berezia.

Bozka eman dutenen artean saritua

■ Garbiñe Iriarte. Hitzako materiala.



KANTABRIA ◉ «Aste Santu honetan Kantabriako Asón bailaran izan ginen. Eguraldiak asko lagundu ez zigun arren asko gozatu genuen paraje haietaz. Argazkian eguneko momentu onena ageri da, euritik babestuta, hamaiketako agin genuen bordarena». JON AIZPURUA (ALEGIA)



DONOSTIA ◉ «Aste Santuan gertu geratu naizenez, kamararekin jolasean ibiltzeko aprobetxatu dut. Iluntzean tripodera jarri, eta minutu erdiko argazkia bota. Kolore gorrixkak hiriko argien isladak sortzen ditu eta zeruko lainoen mugimenduek kolore urdineko pintzeladak dirudite». IBON AZPILIKUETA (ALEGIA)



PALESTINA ◉ «Argazkia Hebronan aterata dago, Palestinako herri sutsu eta borrokalarietako bat, eta gaur egun Israelgo kolono eta armadaren biolentzia gogorrenetakoa jasten ari dena. Hala eta guztiz ere, jendeak umorea ez du galtzen eta oso abegikorrek dira. Benetan bixita bat merezi duen herria». FERNANDO ROJO (TOLOSA)




ate irekiak:
maiatzak 9,
9:30etatik
12:00etara

GOIERRI
LANBIDE-ESKOLA,
BOST ARRAZOI
DETERTEAREN
ASMATZEKO

1. Aukera zabalena
2. Etorkizuneko
3. Enprekin elkarlanean
4. Zuretzat egina
5. Ikasteko eredu aurreratua

batxilergoa eta heziketa zikloak egiteko biderik onena

La granja auzoa, z/g. / 20240 ORDIZIA / 943 88 00 62 / www.goierrieskola.org

Tolosarrak babarrunak ogi artean jaten, ez da egunero ikusten erraza

Tolosa » Slow Food mugimenduaren eskutik, janari mexikarra eta babarrunak gazta eta ogiarekin prestatu zituzten.

E. EZEIZA - N. URBIZU

Tolosa Gourmeten baitan, Slow Food mugimenduko kide den David de Jorge izan zen atzo Tolosako Zerkausan. Berarekin batera Berasategi jatetxeko bi sukaldari mexikar ere etorri ziren eta tortilla mexikarrak prestatu zituzten. Berrez, tortilla hauek Euskal Herriko taloen parekoak dira, baina finagoak egiten dituzte. Jende ugari hurbildu zen hauek dastatzera. Ez bakarrik tortillak, baita babarrun eta gazta ogi xigortuetan ere. Mexikon honi moiletak deitzen zaio.

David de Jorge sukaldari hondarribiarrak azaldu bezala eta Slow Food mugimendukoak jarraitzen duen bezala, «erabilitako produktu guztiak Tolosako azokan erositakoak dira». Kasu honetan Euskal Herriaren ekoiztutako produktuekin janari mexikarra egitea otu zitzaion: tortilla mexikarra, hain zuzen. Guztira 250 tortilla prestatu zituzten, Miguel eta Mi-



Jende asko hurbildu zen prestatutakoa ikusteko eta dastatzeko. ESTI EZEIZA

randa sukaldari laguntzaile mexikarrekin batera. Horretaz gain, ogi errean babarrunak eta gazta nahastu zituzten: tolosarrek babarrunak ogitaratean, zeinek esango zuten...

Tortilla hauek egosi egiten dituzte. Aldiro jaten dituzte Mexikon, barruan edozer sartuta: «Jatordu guztietan jaten dutetortilla».

Txile lehorra, baratzi errearekin eta tomatearekin egindako saltsa garratza prestatu zuten atzo. Honenkin batera, piparrak oilaskoarekin, tomatearekin, aguakatearekin eta tipularekin prestatutako nahaski bat egin zuten taloan sartzeko. Aukeran, babarrunak ere sar zitezkeen. Jendeak gustura jaten zituen.

«Azoka izatea, aberastasuna»

Talotxoan irina Mungiatik ekarri zuten, baina beste guztia Tolosan. «Jende pila bat ikusten ari naiz azokan eta hori pozgarria da. Jendea azkenaldian ez da azoketara joaten».

De Jorge sukaldariak azokako postuetako jendearen lana eta esfortzua goraiatu zituen, baita produktua ere: «Hemen lan handia dago, eguraldiaren araberako uztza biltzen dute eta honera ekartzen dute saltzera. Denda handietara joan behar da, baina lehengai hauek etxetik gertu edukita, hemen erosi beharko genuke».

Slow Food bezalako mugimenduek azokan bertako produktuak erostea bultzatzen dute, eta produktu horrek ahalik eta bide motzena egitea (azokatik sukaldara), eta hilean behin egiten duten ekitaldi honetan, zer presta daitekeen ikus daiteke, besteak beste. «Horrelako ekimenekin saltsa dago eta jendea gerturatzeko bide bat ere bada».

Datorren hilabetean, Donostia-ko Branka jatetxeko Pablo Loureiro ariko da Zerkausan jakiren bat prestatzen, Slow Fooden baitan. Ekainaren 6an zehazki izango da, azoka orduetan.

Egun berezia izan zen atzoko azokan, sukaldari eta guzti

PABLO ALBERDI

Azoko azoka eguna oso animosoa azaldu zitzaigun goizeko lehenengo ordutik. Eguraldia lagun zela, askok izan ziren azokatik pasa zirenak. Guzti hauen artean, David De Jorge sukaldari ospetsua izan zen, Slow Food mugimenduaren baitan.

Sukaldariak azokako produktuen aukeraketa bat egin zuten, eta hauekin egundoko pintxoak prestatu zituzten guztiontzat. Aukeran produktu asko izan zuten, barazki asko, baba eta ilarra nagusi zirela, perretxikoak, zizak eta onddoak, gazta desberdin asko, fruta, eta slow food-a zela-eta nahita ekarritako kanpoko produktuak.

Berdura plazan ikusitako aukera ere aipatzeko izan zen. Baratza landareen postuetan eskaintza zabala eta eskari asko. Eguraldi ona dela eta asko izan ziren baratza lanak ekiteari egin ziotenak. Apaingarriko landareen postuetan ere oso gauza zoragarriak ikusten ari gara azokan asteetan. Landare asko eta sukaldariko lore dezentere ere.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA Merk. Gares.

Landareak		
Alegria	1,20	-
Zainzuria	2,80	-
Erromeroa	4,00	6,00
Klabelina	6,00	-
Lobelia	2,20	-
Geranioa	1,00	1,20
Salbia	1,00	1,20
Dipladenia	10,50	-

BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak		
Ziza	20,00	52,00
Onddo poteetan	9,00	-
Onddoak	15,00	30,00

Barazkiak eta frutak (kiloa)

Tolosako babarruna	10,00	12,00
Intxaurra	2,50	3,00
Errezil sagarra	0,60	5,00
Baba	3,00	4,00
Patata	1,00	1,50

Besteak

Arraultzak	2,50	-
Artisau ogia	2,80	3,70
Ogi biologikoa (500gr)	2,20	-
Irasagarra	3,00	6,00

Gaztak

Gazta berria	17,00	-
Ardi-gazta	14,00	24,00
Behigazta	8,00	9,00

PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Sagarra	2,00	3,00
Azenarioa	2,00	2,50
Baratxuria	1,60	6,00
Tipulak	1,75	2,00
Arroza	1,90	2,00



Copyleft-ari buruz mintzatzen

ANOETA » Anoetako Gaztetxearen X. urteurrenaren baitan, atzo mahai inguru bat izan zen. Gazte talde handi bat bildu zen bertan, Copyleft-ari buruz gehiago jakiteko. Copyright-ari buruz ere aritu ziren eta askok ordura arte ez zekizkiten gauza asko ikasi zuten. Korumba taldeko Julen abeslariak bideratu zuen mahai ingurua, Musikherriak lagunduta. **N. URBIZU**

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Pottokak.** Bi pottoka eme salgai. Interesa dutenek, harremanetan jartzeko deitu telefono zenbakia: 669 92 86 78.

■ **Intza.** Herriko plazan 300 urteko etxea garajearekin bertako eran sendotuz eraberritu eta estreina-

tzekoa, modu onean salgai. Ezinduentzako egokitu. aralarko magalean landetxea jartzeko aukerarekin. Harremanetarako telefonoak: 628 03 07 27 / 609 21 83 41 / 646 11 14 85. Posta elektronikoa: estanga_intz@hotmail.com.



Eskulanetatik kirolera, kulturarekin

KULTURA » Maiatza iristearrekin batera, Kultur Asteak ospatzen hasten dira eskualdeko herri askotan. Oraingoan Alkiza eta Iruraren txanda da. Lehen herrian, txorimaloak egiten ikasten aritu ziren atzo goizean. Ondoren, hauek Alkizako hainbat soro eta baratzetan jarriko dituzte hegaztiak uxatzeko. Bien bitartean, Iruran frontoiaren aurkezpen herrikioa egin zuten. Bertan kadete eta jubenilen mailako Gipuzkoako selekzioak lau jokari aritu ziren herrikoen partida egin ondoren. **E. EZEIZA - N. URBIZU**

Graffitiak, hormetan ere artea egitea posible delako

Tolosa » GKO galeriakoe gongonbidatuta, Txileko graffiti egile batzuk ere Berazubiko paretak margotu zituzten atzo.

E. EZEIZA - N. URBIZU

Tolosako Berazubiko hormak apaindu dituzte berriz; aurretik zeuden graffitiak borratu eta berriak gainean egiten aritu ziren atzo, euskaldun batzuk eta Txileko etorritako hiru lagun.

Garikoitz Muruak adierazi bezala, «Txilekoen graffitiak orokorrean koloristak dira, baina bat batean iluntasun bat sartzen dute. Azken batean beraien errealtatea horrela aurkezten dute. Diktadura batetik datoz eta hori agerian gelditzen da nolabait». Txilen baliabide gutxiago dituzte margotzeko. Esaterako, brotxak, pintzelak ere erabiltzen dituzte, materiala hiru aldiz garestiagoa baitute han. «Gu duela 15 urte bezala daude, gutxi gorabehera. Orduan ez genuzkan sprayak adibidez».

«Lan egiteko era oso desberdina dute ere: gu iristen gara, leku bat hartzen dugu, margotzen hasten gara... Beraiek oso sozialak dira, jendea aurretik pasatzen da eta

hitz egiten hasten dira. Dinamikoak dira». Puntu hau interesgarria da Tolosan elkartu diren euskaldunentzat, «jende honekin zer nolako interakzioa lortzen dugun ikusi nahi dugu».

Txilekoak duela urte erdi bat edo, Baionara etorri ziren gonbidatu gisa eta aldi berean bertan parte hartzeko. «Angela Mejias argazkilariak gurekin jarri zituzten harremanetan, galeria bat dugula esanez. Ondorioz *Dialogos urbanos Chile, España, Francia* proiektua sortu zen. Elkartruke bat izan da. Helburua da zein dinamika sortzen den ikustea, artistekin zein loturak sortzen diren eta zeinek duen aukera bertara joateko. Mementoz hiru galeria lortu ditugu».

Euskal Herrian, Tolosa aitzindaria

Tolosako Udalak Txilekoen aterpeko egonaldia ordaindu du eta margo txuria hormak ezabatzeko ere bai. Beste guztia GKO galeriakoen kontura doa. «Dirua behar da hau aurrera eramateko. Hasiera batean Txiletik 5 lagun etorri behar ziren baina azkenean hiru etorri dira. Baina oso aberasgarria da».

Tolosan baimena dago hormetan margotzeko, Euskal Herrian leku gutxi daude margotzeko. «Gi-



Txileko graffiti egile bat, Berazubiri bere obra bukatzen. N. URBIZU

zarreak gero eta hobeto hartzen dituzte lan hauek, ez dute artetatzen, baina badoa. Baina oraindik Euskal Herrian lotsagabe batzuk gara askorentzat». Etiketa hori kenzeko lanean ari dira GKO galeriakoe beste gauza askoren artean. «Eboluzionatzen ari gara, batzuk jada erakusketak ere egiten dituzte, Txilera joango gara gonbidatu gisa... Horrek zerbait esan nahi du, baloratzen zaigula». Tolosan margotu ahal izatea zortea da.

Turismoa egiteko aukera

Txileko KilturV artista taldea graffiti egitera etortzeaz gain (ostegunean Plaza Zaharrean aritu ziren), bertako festak ezagutzeko aukera ere izan dute. Izan ere, Ibarako Garagardo Azoka ere bisitatu zuten. Hala ere, graffiti dotoreak egiteko gaitasuna izan zuten, Berazubi kiroldegiko hormetan. Han izango dira paretak berriak, mundu honetan Euskal Herrian aitzindari izan den Tolosako Berazubiri.

«Graffitiak beti bandalismo kutsua izan behar du, bestela dekorazioa izango litzateke»

NEBS PEREIRA » Graffiti egilea

Kultura » 14 urte daramatza paretak margotzen, zerbait esan nahian beti, «beti baitago zerbait esateko».

N. URBIZU

Nebs Pereira (Santiago Txile, 1979) Tolosara etorri den txiletarretako bat da. 1995. urtean hasi zen paretak margotzen. Bere graffitiak «beti mezu bat izan behar dute».

Txiletik beste noizbait atera izan zara margotzera?

Bai, beste bi aldiz. Esperientzia polita izaten ari da. Gaztelera hemen ere hitz egitearekin komunikatzeko erraz daukagu. Jendea ere nahiko irekia da hemen.

Graffiti batek beti zerbait adierazi behar du?



E. EZEIZA

Ez du zertan. Niri gustatzen zait graffitiak zerbait esatea, mezu bat izatea, bestela dekoratzaile izateko ikasiko nuke. Baina ez, badira ezer adierazi edo esan nahi duten paretak ere.

Txilen margotzeko aukera asko daukazue?

Bai, hemen baino gehiago, erraza da. Hemen material asko dago, baina horma gutxiago. Han askatasun gehiago daukagu ia-ia edozein lekutan margotzeko. Txilen margotzen duen jende asko dago, onak eta txarrak ere bai, eta ume-umetatik hasten direnak ere bai.

Graffiti aldetik aldeak ikusten dituzue hemengoan eta Txilekoen artean?

Zehazki nire lana indigena txiletar batzuekin lotzen dut beti. Kolonia alemaniar batek Txileko indigena batzuk desagertarazi zituen. Alemaniarrek Europan zehar eraman zituzten bi ume, erakusketa bateko parte bailiran. Ondorioz hil egin ziren. Nolabait nire lanetan beti hori gogoratzen dut, Europan nagonean behintzat.

Graffitiak badu bandalismoarekin lotura bat?

Graffitiak beti bandalismo kutsua izan behar du, ez du hori galdu behar. Bestela, esentzia hori galtzen badu, dekorazioa izatera pasako litzateke. Gazteek gauzak adierazi, esan egin nahi dituzte.

Zerbait ikasi dizue hemen graffiti dagokionez?

Materialaren aldetik ia dena sprayarekin egiten dute, oso marka onekoak, guk margo gehiago erabiltzen dugu. Txilen margoa merkeagoa da, sprayak ez. Hiru etorri gara honetara eta urrian euskaldunak bertara joango dira, erakusketan moduan jartzera, arte garaikide moduan.

Ez dizue pena ematen lanak ezabatzea?

Ez, kalea guztiona da, kalea horrela da. Pena emanez gero margolan bat egin edo argazkia atera.

Laburrak

Etzi, 'Ino, Ino, Ino' badator Bonbardino' ikuskizuna

ALTZO » Galtzaundi Euskara Taldeak Altzon haur ikuskizun bat antolatu du etzi. Zenbat gara antzerki taldearen eskutik, *Ino, Ino, Ino, badator Bonbardino* izango da. Lizar-beko gelan izango da, 17:30ean.

Maiatzak 21eko grebarako deialdia egin dute

ANOETA » Euskal gehiengo sindikalak greba orokorrerako deialdia egin du maiatzaren 21erako. «Lan-gileok arrazoiak ditugu patronalaren eta administrazioen txantaje eta jokabide zikinei erantzuteko eta krisialdi hau ordaintzeko prest ez gaudela esateko». Bada, bihar 19:30ean Anoetako udaletxean maiatzaren 21eko greba aurrera eramateko greba komitea osatzeko bilera egingo dute. «Deia luzatzen diegu grebarekin bat egiten duten guztiei bertara azaltzeko».

'Garai bateko Alegia'-n bazkaria antolatu dute

ALEGIA » Alegiako kultur batzordeak *Garai bateko Alegia* ekintza prestatzen ari da ekainak 7rako. Egun horretan egongo den bazkariako txartelak salgai daude dagoeneko, hilaren 31ra arte. Kurpil, Iskiña, Etxeberria, Jubilatua, Kafe Letamendia eta Eizmendi taberretan eta Kultur Etxean lor daitezke 10 eurotan. Menua paella, postrea eta edaria (sagardoa eta ardoa) izango da.

Presoen eskubideen aldeko papera sinatzeko aukera

ALEGIA » Alegian, gaur bertan eta goizean zehar presoen eskubideen aldeko sinadura bilketa egingo dute. Herriko plazan mahai bat izango da, bertan sinatu ahal izateko.

Ezohiko bilkura egingo dute bihar, 14:15ean

ANOETA » Bihar, Anoetan ezohiko bilkura egingo dute. Hau 14:15ean hasiko da, udaletxean bertan. Hauek dira landuko dituzten gaiak: Anoetako entzunaretoiko proiektuaren behin-betiko esleipena eta ondoren ekainaren 7an Europako Parlamenturako hauteskundeak dirala eta, mahai-kideen hautaketa.

San Isidroko afarirako txartelak salgai daude

ALTZO » Hilaren 15ean San Isidro ospatzeko (baserritarren eguna), Altzon 21:00etan Santa Maria elizan meza ospatuko dute eta jarraian, Segoretxen afaria egingo dute. Azken honetara joateko, ize-na eraman behar da asteazkena baino lehen, Segoretxen bertan. 943 65 22 62 telefono zenbakira deituz egin daiteke.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

» GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1.943 673649.
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52.112.
Bihar
■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46.943 673274.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Iosune Sarasola. Bihar urtebetetze eguna eta asteartean ezkontzako urtemuga. Ondo pasa eguna!

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Tolosa Kup areto futboleko txapelketa abian da berriro

TOLOSA Berrito ere hemen da Tolosa Kup areto futboleko txapelketa. Duela aste gutxi hasi zen koadrila ezberdinen arteko txapelketa herrikoi hau. Uzturpe pilotalekuan jokatzeko dira asteburuero norgehiagokak, larunbata nahiz igandetan. Hauek, San Joan jaiak arte luzatuko dira eta orduan jokatu da finala. Atzokoan, 16:00etan hasi ziren partidak eta iluntzera arte luzatu. Parte-hartzaileak ez ezik, hainbat lagun ere hurbildu ziren pilotalekura, partidak ikustera eta lagunak animatzera. Honenbestez, hurrengo asteburuan ere partida gehiago ikusteko aukera izango da. **E. EZBZA**



Zorionak!

Maialen eta Naia (Elduain). Zuen Jaunartze egunean, ondo-ondo pasa dezazuela opatuz, muxuak familiaren partetik.

Hitza
diskoteka alokatzen da
677 177 286



Asteartean, maiatzak 12, 10:30ean
NEREA SANCHO sexologoarekin
elkarrizketa digitala

Bidali zure galdera!

HITZAren erredakzioan izango da zuzenean zuen galderak erantzuteko. Aurrez ere zuen galderak bidal ditzakezue gure webgunean.

www.tolosaldeko-hitza.info webgunean

